

Nº 709

DVK

OINARRIZKO KIROLAREN ARRIA
OSTEGUNA 12.11.01 EL DIARIO VASCO

Piraguismoa.

Haizeari eta euriari
desafio egin zieten
piraguita txikiek
Bidasoa ibaian.
(4. ORRIALDEA)

@diariovasco.com

Zure taldearentzat
internet gunea:
blogak, irudi galeriak,
albisteak...



Kanadatik Txurira

Toronton bi urte eman ostean, Donostiara
itzuli da Patrick Fuentes, hamazazpi urteko gazte
donostiarra. Ipar Amerikan ikasitako guztia
praktikan jartzen ari da orain Txuriko jokalar bezala.

Txurik Jacaren kontra jokatuko du datorren larunbatean, 21.30etan, playofferako txartela ziurtatu asmoz. :: UNCITI

ASTEKO ARGAZKI BILDUMA



Gimnastika erritmikoa. Izar Lekuren junior mailako taldea osatzen dute Andrea, Cristina, Elena, Amaia, Natalia eta Naiarak. Euren entrenatzailea da Nagore Sanz. — ARTXIBOA



Halterofilia. Bigarren eta hirugarren izan ziren Susana Davila eta Goretti Amonarriz Madrilén, 15 urte azpiko Espainiako txapelketan. — ARTXIBOA

AZALEAN

** IOSU GORROTXATEGI

Izotz gaineko hockey jokalaria bikaina dela esaten dute adituek. Kanadan bi urte eman ditu hamazazpi urteko Patrick Fuentesek eta orain Txurira itzuli da ikasi duen guztia praktikan jartzeko prest. Eutsi Patrick!

-Nolatan hasi zinen izotz gainean patinatzen?

-Hiruzpalau urterekin hasi nintzen. Dirudienez, oso goiz esnatzen omen nintzen asteburuetan eta hain goiz futbolik ez zegoenez, zazpiretan esnatu eta telebista ikusten egon ez nedin, patinatzerara eraman ninduten gurasoek.

-Zeintzuk dira zure lehen oroitzapenak izotzaren gainean?

-Ez daukat oroitzapen handiegirik. Hasieran bai, zirrara berezia eragin zidala izotzak. Asko gustatu zitzaidan, berehala. Lehen bi urteetan patinatzen ikasi nuen eta hockey eskolan sartu nintzen sei urterekin.

-Kanadan eman omen dituzu azken bi urteak...

-Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila egitera joan nintzen hara, hamabost urterekin. Hiru urte neramatzan hango udako kanpamendu batera joaten, hockeya eta ingelesa uztartzera, hango geratzeko aukera eskaini zidaten arte. Gurasoei kontua azaldu nien eta azkenean ikastetxeak beka bat eman zidan hango geratu nedin. Esperientzia polita izan da.

-Oso gazte joan zinen etxetik...

-Hamabost urterekin joan nintzen eta bi urte eman ditut han, Aurora izeneko herrixka batean, Torontotik gertu. Estatu Batuekin mugan dagoen eskualde batean dago, Ontarion alegia. Saint Andrews College izeneko ikastetxean egon naiz eta ni baino bi urte zaharragoak direnekin jokatu dut.

-Izotz hockeyak kristoren indarra

«Hockeya kirol erregea da Kanadan, hemen futbola bezala»

Patrick Fuentesek bi urte eman ditu Torontotik gertu eta Txurira itzuli da orain dena ematera



du Kanadan. Diferentzia nabaria izango zen hemengo eta hango ligaren artean, ezta?

-Bai. Gehienbat, hango jende guztiak kontrolatzen du taktika, jende guztiak daki jokatzeko. Ez dago inor izotzean galduta; jende guztiak daki zer egin behar duen. Ni hara joan nintzenean, nahiko maila ona neukan teknika aldetik, baina ez nekien jokatzeko. Zentzu horretan, askorako balio izan dit esperientziak. Asko ikasi dut.

-Duela gutxi itzuli zara etxera...

-Bi hilabete daramat Txurin berriro ere jokatzeko.

-Zuzenean senior mailako taldean hastea ez dago batere gaizki zu bezalako hamazazpi urteko gazte batentzat. Espero al zenuen lehen taldean sartzea?

-Nire adineko bi jokalarik lehen taldean jokatu zuten iaz eta ni ere aurretik sartuko nintzela espero nuen. Zer moduz daramazue denboraldia?

-Nahiko txukun ari gara. Madrili irabazi eta Bartzelonaren kontra berdindu eta gero, hiru partida galdu ditugu bata bestearen atzetik, baina bigarren itzuliko lehen bi partidak irabazi ditugu gero eta orain eskura daukagu playoffean sartzea. Saillkapeneko lehen lau taldeak sartuko dira eta gu, oraingoz, laugarrenak gara taulan. Hori bai, larunbat honetan Jacari irabazteko esperantza daukagu, 21.30tik aurrera Izotz Jauregian.

-Partida hori irabazita, playoffa ziurtatuko duzue...

-Hori dirudi, bai. Honen ostean, beste bi partida geratuko litateke, baina garaipen batek alde emango liguke bostgarrenarekiko.

-Pertsonalki, zer moduz ari zara?

-Ondo sentitzen ari naiz. Bi atzeritarrekin ari naiz jokatzeko lerro berean eta gustora ari naiz. Talde majoa daukagu, lehiakorra, eta gainera, oso giro ona dago aldagelan. Gol askon sartu al duzu?

-Oraingoz bi sartu ditut. Golak sartu baino, asistentziak ematen dituen jokalaria naiz. Orain arte bost

Zure argazkiak argitaratu eta konpartitu itzazu hurrengo webgunean <http://canales.diariovasco.com/dvkirolak/> eta dvkirolak@aragi.com



Mahai tenisa. Kontzentratu harrapatu dugu Leka Enea taldeko Olatz Zuazua joan den asteburuko partida batean. **ARTXIBOA**



Areto futbol. Ostadar taldean dabilta Hernando, Lizarra, Ibaceta, Sanchez, Navarro, Artetxe, Barquero, Rodriguez, Masa, Marcos, Korta, Arin, Hurtado, Arruti, Calle eta Arruti. **TXEMA VALLES**

«Ni hara joan nintzenean, nahiko maila ona neukan teknika aldetik, baina ez nekien jokatzeko»

«Taldea majoa daukagu, lehiakorra, eta gainera, oso giro ona dago aldagelara. Ea Jacari irabazten diogun»

«Golak sartu baino, asistentziak ematen dituen jokalaria naiz. Orain arte bost eman ditut eta bi gol sartu»

«Estatu Batuetan unibertsitatea hockeyari esker ordaintzea da nire helburua»

eman ditut. Jakingo duzunez, izotz gaineko hockeyan golak eta asistentziak batu egiten dira eta nik, saillapen horretan, zazpi puntu dauzkat guztira. Taldeko laugarrena naiz horretan.

-Liga irabazteko aukerarik ikusten al duzu?

-Beti daude aukerak, baina oso talde indartsuak daude. Horra hor talde gasteiztarra; diru asko daukate

eta fitxaketa asko egin dituzte. Lau garren postuan amaituko bagenu, beraien kontra jokatu beharko genuke finalerdietan eta zaila litza-teke oztopo hori gainditzea. Egia esateko, talde onak dira Vitoria, Jaca eta Puigcerda.

-Espainiar selekzioarekin ere nazioarteko txapelketak jokatu izan dituzu...

-Joan den martxoan Serbian izan ginen, 18 urte azpiko Europako txapelketan eta hirugarren postuan amaitu genuen. 20 urte azpiko munduko txapelketa jokatu da abenduan Errumanian eta 18 urte azpikoa Serbian izango da martxoan. Bietan egoteko esperantza daukat.

-Zer pentsatzen duzu izotz gaineko hockeyan etorkizun paregabea daukazula esaten dutenean...

-Konplimendu bat bezala hartzen dut, baina eskertzen da jendeak hori esatea. Inori ez huts egitea espero dut. Hobetzen jarraitzea da nire asmoa.

-Zeintzuk dira zure bertute nagusiak izotz gainean?

-Azelerazio eta abiadura handiko jokalaria izateaz gain, pase onak une aproposan ematen dakit.

-Asteazken zenbat aldiz entrenatzen duzu?

-Senior mailako taldearekin entrenatzen dugu astelehen, asteazken eta ostiraletan, gaueko hamartak laurden gutxiagotan hasita...

-Oso berandu da hori, aizu...

-Bai, baina izotza garestia da eta ez dago beste ordurik. Bestalde, ostegunetan ere entrenatzen dut 18 urte azpiko taldearekin.

-Geratzen al zaizu astirik ikasteko?

-Ikastolatik irten bezain pronto egin behar izaten ditut etxekolanak. Denbora askorik ez da geratzen, baina hor nabil...

-Eta beste gauza bat. Entrenamenduak hain berandu amaituta, ez al zaizu hurrengo egunean logaleak harrapatzen?

-Gaueko hamaikak laurden gutxiagotan amaitzen dugu eta bai, historiako klaseetan lo hartzeko go-



Liga irabaztea zaila izango dela aitortzen du Patrick. **UNEMI**

goa sartzen zait batzutan, baina esna egoten saiatzen naiz. Lo asko egiten dut asteburuetan.

-Zein da zure ametsa?

-Estatu Batuetan unibertsitatea hockeyari esker ordaintzea da nire helburua. Eta behin karrera amaitutakoan, kirola ogibidea izan dadila. Ahal duan guztia egingo dut hara iristeko.

-Kanadan, NHL ligako partidarik

ikusteko aukerarik izan al zenuen?

-Toronto Maple Leafs taldearenak ikustera joaten nintzen gehienbat. Ikaragarria izan zen 40.000 ikusleko estadiora joatea, amets bat. Kontuan hartu han izotz gaineko hockeya kirol erregea dela, hemen futbol bezala.

-Telebistan ikusi izan ditugu jokalarien arteko borroka epaileek ez eragiten ez duten bitartean. Zer iru-

ditzen zaizu?

-Borroka kontua asko aldatu da azken urteetan. Borroka kentzen saiatzen ari dira. Batetik, borrokatzen diren jokalarientzat arrisku-tua delako eta bestetik, hori ez delako hockeya, boxeo baizik. Noiz-behinka borrokaren bat egoten jarraitzen du, baina jadanik jendeak ez du nahi taldeek borroka jokalariek fitxatu ditzatela.